



WWW.VALLEDEBAZTAN.COM


ERRATZU – XORROXIN – GOROSTAPOLO – ERRATZU

ERRATZUTIK IBILBIDEA

Hasmenta-akaballa:	Erratzu, herri sarreran	Itzulia:	Zirkularra, ondar tartea ez bertze
Iraupena:	2:15 ordu altaxu (haurrekin gehixago)	Ibilbidea:	Balizak, kartelak eta zurezko posteak
Luzera:	7,4 km.	Bide mota:	Lur eta harrizko xenda
Malda	150m	Track-a:	Jaitzi

ITZULI BERRIA (2017-KO ABUZTUA)

Ibilbide berri hau Gorostapoloko auzoan sortutako trafiko arazoak sahiesteko sortu da. Iñerbegiko errekaren ibilbidea segitzen du eta zirkularra da. Proposamen berri hau arras pollita eta erraza da, familiarekin egiteko modukoa. Nahiz eta bere lehendabiziko fasean egon -etorkizunean panel gehiago jarriko dira-, itzuli hau nagusi bezala jarri nahi da eta prest dago bertatik ibiltzeko.



ZAILTASUNA

Ez du inongo zailtasunik. Euriarekin lohi pixka bat sortzen ahal da eta erne ibili behar da iristatu gabe, baina bertzenaz arras erraza da. Tarte batean eskailera tallatuak daude, beraz haur-silletak ez dira gomendagarriak.



Tfn. 608 01 20 60
www.valledebaztan.com
info@valledebaztan.com



WWW.VALLEDEBAZTAN.COM

NOLA AILEGATU

Oronozko herrian 121A errepidea utzi eta 121B-a hartu. Elizondo pasa eta Ordoki-Arizkungo bidegurutzean eskuin hartu Izpegi-Erratzu aldera (2600-NA errepidea).

IBILBIDEA

Autoa Erratzuko sarreran uztea gomendatzen da, lehendabiziko etxebizitzeko parkinean. Buztinaga Etxe aldera jo (Xorroxingo kartela segituz) eta herria zeharkatu Araneko zubira ailegatu arte.

Hemendik aitzin ez dago galtzerik, maiz ikusiko baititugu zurezko poste eta markak.



Itzuli berri hau izugarri pollita da, berdea-berdea eta frexkoa udako egun beroetan egiteko. Erne etxeko ttikiak zuhaitzen zain eta harriekin irristatu gabe!

Ibilbideko 2 heren egin eta gero Gorostapolotik jausten den betiko bidera agertuko gara. Bidexka aitzina segi eta lastes ailegatuko gara Xorroxingo ur-purrustara.

Bueltan Soledadeko ermitara iritsiko gara. Nahi izanez gero Gorostapoloko auzoa bisitatzeko ahal dugu, ondoan baitago eta merezi baitu bere etxe xarmentak ikustea.

Errepide asfaltatua hartu eta tira beheiti Erratzu aldera, Auza mendia eta inguru ederretaz gozatzeko dugun bitartean.

KOKAPENA

Erratzu 31714
Baztan
(Nafarroa)

GPS: 43.1811849,-1.4611644,16



Tfn. 608 01 20 60
www.valledebaztan.com
info@valledebaztan.com